


the balde




0€

apirila 1 maizta
ezteia 1 maizta

33

taupada elektrikoak
electric heartbeats

33



the balde

antsoain 1
31014 iruñea
t. +34 948 12 19 76

kristobaldegi 14
20014 loiola donostia
t. +34 943 44 44 22

info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 696406396

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin. komunikazioa eragin sll

editore / editor: iñigo martínez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director &

publizitatea / publicity: arantza subiñas

diseinua / design: martin etxauri, unai abarzuza, marisa mantxola

sonia beroiz, igor astigarraga, ekaitz auzmendi, ainara gorostiaga

itzulpenak / translations: smiley, amaia orella

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz

villar, eider rodríguez, maria odolbatu, imanol aizpuru, deckard, harkaitz

cano, uxeta labrit

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: galder izagirre,

el umilde fotografo del pánico, manu muniategiandikoetxea, linbur kolektiboa,

the balde crew

komiki tira / komik strip: jon manzísidor

komikia / comic: txo!?

harpidetza orria / subscription page: kokomilona

inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiak honako lizentzia pean daude:



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehatzetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



Lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:

Imaginative, provocative and interesting works? send them to:

info@thebalde.net

Ume bat familian hartzea zaila dela uste baduzu, saiatu birekin.

Gurasoengandik aldentzea gogorra bada, anai-arrebengandik urruntzea, zer esanik ez. Harrera zailagoa izango da, baina poza bikoitza. Harrera haurrari haurtzaroa ematea da. Duzun guztia ematea da.

Ume bat
zain daukazu.

943 11 25 09
www.gizartekintza.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gero eta hurbilago!

LABURRAK IN BRIEF



THE WHO BILBAON (Maiatzak 19)

Gaztetxoentzat, the Who, CSI telesailiko sarrerako musikaren egileak dira. Hain gazte ez garenontzat ordea, animalia mitologikoak dira. Eta animalia hauek Bilbon joko dute. Dirua egiteko batzen den dinosaurioen beste banda bat izan daiteke, baina iaz Townshend eta Daltrey-k zuzentzen duten the who honen kontzertuetan egon ziren kritikoenek ere onartu behar izan zuten, zuzenekoan ez dutela oraindik parekorik.

THE WHO IN BILBAO (May 19)

For the young, The Who are the creators of the introductory music for CSI. But for those of us who are not that young, they are mythological animals. And these animals will be playing in Bilbao. This could be one more of the dinosaur's band but last year the critics that were in the Who's concert directed by Townshend and Daltrey, had to admit that there is no one that could be as good as them on stage.

RICARDO PELAEZ KOMIKI MINTEGIA


Komiki ikastaroa antolatu dute Azkoitian egungo Mexikoko komikigile eta ilustratzaile arrakastatsuenarekin: Ricardo Pelaez. Ez da ohikoa gurean horrelako ikastaro bereziak antolatzea, beraz komiki zaleok ez galdu aukera hau. Ekainaren 18an hasiko da. Izena emateko eta informazio gehiago biltzeko Azkoitiako aterpetxera jo. Horrezaz gain artista mexikarraren obraren erakusketa izango da bertan ekaina osoan zehar.

RICARDO PELAEZ COMIC SEMINAR

There will be a comic course in Azkoitia with today's most famous Mexican comic writer and illustrator: Ricardo Pelaez. There will be also an exposition dedicated to Ricardo Pelaez. It is not usual to find this kind of courses around, so comic lover shouldn't miss this opportunity. It will be held from June 18th. To register and get more info ask in the Aterpetxe.



MUSIC FOR DIFFERENT GENERATIONS




DIAMANDA GALÁS (Maiatzak 4)

"Switch on the powers! Zarata eta politika musikalak" erakusketaren amaierako kontzertuan sailkaezina den artista horietako batek emango du. Gasteizko Principal Antzokian izango dugu XXI. mendeko diva hau ikusi eta entzuteko aukera.

DIAMANDA GALÁS (May 4)

It will be the closing concert for the "Switch on the power! Noise and policies on music" event. You have the chance to see this unique 21 century diva in the Principal theater in Vitoria- Gasteiz.



Info. Pepper Line S.L. T. 972 269 200 - 902 310 032



San Clemente, California
more on franklinandmarshall.com



**FRANKLIN
MARSHALL**



GOOGLE PATENTS

Dagoeneko ingelesez aditz izatera iritsi den bilatzaile honek (ez dakit zer den baina berehala googleatuko dut) atal berri bat du. Patenteen atala. Nork esan behar zigun asmakizun ezberdinen patenteak eta hauek aurrera ateratzeko dokumentu ezberdinak hain interesgarria izango zitzaizkigunik.

www.google.com/patents

GOOGLE PATENTS

This browser that has already turned into a verb (I don't know what it is but I will google it) has a new chapter; a chapter about patents. Who would say that the patent of different inventions and the documents to make them work would be so interesting.


www.google.com/patents

PATTI SMITH (Ekainak 1)

1975. urtean bere lehendabiziko diskoa kaleratu zuenetik (*Horses*), erreferentzia izan da mundu osoko beste musikarientzat. Eta esanguratsua da, Patti Smith-ek ez duelako inoiz zerrendetan 20. postutik behera kanturik sartzea lortu. Arrakasta, salmentekin edo top zerrendekin zerikusirik ez duenaren erakusle honek Victoria Eugenia eskainiko du kontzertua.

PATTI SMITH (Ekainak 1)

Since she published her first album in 1975 (*Horses*), she has been a reference for the rest of the musicians in the world. And it is significant the fact that Patti Smith has never got a song in the top 20. This master, who doesn't have anything to do with success, sales or top lists, will offer a concert in Victoria Eugenia.



GREAT LOW-FI ART

CYRIAK

Cyriak artista multimedia bat da, nahiz eta berak oraindik ez du horren konzientzia argirik. Komikiak, bideoak, ilustrazioak, gif animatuak,... irudiarekin zerikusia duten alor ugari jorratzen du bere estilo apurtzailearekin. XXI. mendeko Monthy Piton makarra baten moduan bere garunean sortzen diren ankerkeria guztiak gauzatzeko dituzte gure ustez Cyriak gure planeta suntsitzera bidalitako extralurtar bat da.

www.cyriak.co.uk



CYRIAK

Cyriak is a multimedia artist, although he doesn't have yet a clear conscience about it. He has an unique style and he works on many aspects related to the image: comics, videos, illustration, animated gifs... This 21st century tacky Monthy Piton fulfils all the weird ideas that are created on his mind. We think that Cyriak is an alien sent to destroy our planet.

www.cyriak.co.uk



X!B!oUZ

www.xibiouz.com



“BIGIRADA” BIKOITZAK

BISIONS

Bi begirada edo begirada baten bikoiztasuna. Bisions proiektuak erakusten diguna sinplea eta era berean ederra da. Argazkiak binaka aurkeztea da web gune honen ardatza. Modu honetan aurkezturiko argazkiek sortzen dituzten jokoek ez dute mugarik. Bisitatxoa egin eta “bigiratu”.

www.bisions.com

BISIONS

Two looks or the duality of a look. What the project Bisions offers is simple and beautiful. The axis of this web page is to show the pictures by pairs. This way the games that the pictures offer are unlimited. Visit and look.

www.bisions.com

OHMIBOD

Uste duzu kaletik zure ipod-a entzunez joatea baino gauza modernoagoa ez dela? Ohmibod du izena eta zure ipod-aren osagarri mundiala da. Zure belarrietan musika entzuten duzun bitartean, musika horren erritmora doan bibrazioa sentitu dezakezu zure hankartean.

Nola lortu dezakezun zure lagun “gafapast”-en inbidia izango den tramankulu hau? Begiratu hemen beheko webgunea.

www.ohmibod.com

OHMIBOD


Do you think there is nothing more “in” than walking on the streets listening to your Ipod? Wrong! It’s called Ohmibod and it’s the best accessory for your Ipod. While you listen to music on your ears, you can feel the vibration of that rhythm between your legs. How can you get this piece of junk that your friend “cool” friends will envy? Check this webpage.

www.ohmibod.com



HEGOPOP (Maiatzak 7tik 12ra)

Aniztasunerako musika eta arte jaialdiaren edizio berri bat ospatuko da Bilbon. Aurtengo partaideen artean, Chico y Chica, Astrud, Luis Míguez...eta bara luze bat. Kontzertuak kafe Antzokian ospatuko dira, eta aspertzeko segundu bakarra ez dela izango susmatzen dugu.



HEGOPOP (May 7 - 12)

This open minded festival held in Bilbao comes one more time with a variety of artists and musicians. Among them, Chico y Chica, Astrud, Luis Míguez... If you don’t want to get bored... Kafe Antzokia will be the place to be.

www.hegopop.com



DESKONTUAK MILAKA DENDATAN
BIDAI-ASEGURUA
EUROPA OSOAN BALIAGARRIA

Gazte-txartela. Edukitzea da normalena.



aurrera doan **herria**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



KULTURA SAILA
Gazteria eta Gizarte Ekintzarako
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Juventud y Acción
Comunitaria



MATERNIDAD

Musika, bideoa, testuak eta argazkiak biltzen dituen formatu txiki eta oso bitxian argitaratutako proiektua. Doropaedia izeneko bilduman kaleratu dute eta horrek gisa honetako ale eder gehiago izango direnaren itxaropena ematen digu. Beste batzuen artean Anticonceptivas, Sibyl Vane edo Silvia Coral Y Los Arrecifes-en kantutak topatuko dituzue bertan.

www.produccionesoradas.com




COMBO

Skate bideoek estetika nahiko zehatz eta finkoa izaten dute. Laburmetrai honek beste ikuspegi bat eskaintzen du. Abilezia teknikoak islatu baino skatearen alderdi sentsoriala uzten du agerian. Patinatzaileen estilo ezberdinek, errealizazioak eta musikak zentzumen guztiak esnarazten dituen koreografia bat osatzen dute "Combo" filman. Skatea zer den dakitenentzat lan berezi bat, ezezaguna zaienentzat gerturatzeko ikuspuntu berri eta eder bat.

MATERNIDAD

This is a project that publishes music, videos, texts and photos in a small and odd format. It has been published in a collection called Doropaedia and gives us hope that there will be more like it coming. These are some of the bands that you can find in this project: Anticonceptivas, Sibyl Vane or Silvia Coral Y Los Arrecifes.



www.produccionesoradas.com

SK8 CHOREOGRAPHY

COMBO

Skate videos have a precise and firm aesthetics. This short offers a different point of view. Instead of focusing in technical abilities, it shows the sensory side of skating. In this movie, the skaters' different styles, achievements and music form a choreography that will waken your senses. A different piece of work for those who know what skate is and for those who this world is unknown, a new and nice point of view to get to know it.

Brusisten Nazioarteko kongresua



IKASTAROAK, DANTZA, MUSIKA, ANTZERKIA
ARTEA, HIRIA, **MINTEGIAK**, TEKNOLOGIA
BERRIAK, KOMUNIKAZIOA, **TAILERRAK**
LITERATURA, IKUSENTZUNEZKOAK, HEZKUNTZA
GIZARTEA, **IKASTAROAK**, DANTZA, MUSIKA
ANTZERKIA, ARTEA, HIRIA, **MINTEGIAK**
TEKNOLOGIA BERRIAK, KOMUNIKAZIOA

BILBAO ARTE ETA KULTURA

TOPAKETAK VIII ENCUENTROS

CURSOS, DANZA, MÚSICA, TEATRO, ARTE
NUEVAS TECNOLOGÍAS, **SEMINARIOS**
AUDIOVISUAL, **TALLERES**, COMUNICACIÓN
LITERATURA, EDUCACIÓN, SOCIEDAD, CIUDAD
CURSOS, DANZA, MÚSICA, TEATRO, ARTE
NUEVAS TECNOLOGÍAS, **SEMINARIOS**
AUDIOVISUAL, **TALLERES**, COMUNICACIÓN



PATROCINADORES . BABESLEAK
COLABORAN . LAGUNTZAILEAK

GuggenheimBILBAO

bbk



metro bilbao



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



J.R AMONDARAIN
2007-04-19 / 2007-06-16



www.thebalde.net



Isidoro Guinea
Dekorazio Arteak
2007-04-25 / 2007-06-23




KOLDO MITXELENA Kulturunea
Erakustaretoa - Sala de Exposiciones
Urdaneta 9 - 20006 Donostia-San Sebastián
www.gipuzkoakultura.com
sala@gipuzkoa.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura Zuzendaritza Nagusia
Dirección General de Cultura

Medio guztietan eroso.



eragin.com
info@eragin.com

diseinu, internet eta argitarapenak

GOIN BUMP ON

skunkfunk





SC
STRIP

releases






releases




A PAIR OF

INSECT






Ilustrazioak / Illustrations: Jonas Liverod.
A project by Skunk Funk "people do funk" & the swedish artist Jonas Liverod
Skunk Funk "people do funk" eta Jonas Liverod artista suediararen arteko kolaboraziotik sortutako proiektua.



releases




A PAIR OF



skunkfunk

↑ NEW JACKET!




SUNSET
STAR



people do funk



Jonas Liverod vs. Skunkfunk



howe gelb-en kaleidoskopio sonikoa

testua / by: deckard

argazkiak / shots: el humilde fotero del pánico

the sonic kaleidoscope of howie gelb



Accompanied by only a piano and a guitar, the unclassifiable United States musician Howe Gelb has appeared recently in two minor Basque venues (Muskiz and Zarautz) with a totally different set up than that used months ago in the Donostia Jazzaldia. Months ago Gelb inaugurated this latter event on the beach of Zurriola surrounded by the gospel chorus with which he recorded "No Angel Like You," his latest solo work. Gelb's prestige, inversely proportional to his public recognition, derives from a vast oeuvre that, starting from alt-country revisionism, always assumes with certainty the risk of incorporating almost any musical style.

The main current of his work goes by the name *Giant Sand*, the ordinary group established in Tucson, Arizona. From this group Gelb's different alternative projects stem, like branches, alongside those of other bandmates in *Giant Sand*. Together these artists have spent nearly 30 years translating different musical styles using a foundation of peripheral rock with a heavy American accent.

OP8, *The Band of Blacy Ranchette*, *Giant Sandworms*, or more recently, *Arizona Amp and Alternator*, are only a few of the thousand faces with which Gelb develops work rooted in the mother group, *Giant Sand*. Additionally, this group has brought to light such illustrious derivations as *The Friends of Dean Martinez* and, most importantly, *Calexico*—the successful combo of Joey Burns and John Convertino. With these two musicians still in his ranks and with the production, for the first time, of John Parish, *Giant Sand* recorded what probably constitutes a career high for Gelb, the inimitable "Chore of Enchantment" (2000), which has been defined as "the sound of the desert."

Without neglecting his main project, Howe Gelb has found some time to record two other instrumental piano albums or the mentioned album with the gospel chorus. He has also cooperated in his long time friend, Rainer Ptacek's project, the person who discovered the slide guitar.

Always restless, this gravely voice that some people compare to Lou Reed's still keeps adding color and form to his musical kaleidoscope by recording a "molecular music" album with an Austrian band. Moreover, he is working on a new piano album and has also accepted Fernando Vacas' (*Flow, Prin La La*) invitation to try some flamenco music. Gelb keeps going, always moving forward.

Piano eta gitarra baten laguntza soilarekin agertu da duela gutxi eszenatoki txiki bitan (Muskizen eta Zarautzen) musikari estatubatuar sailkaezina. Duela hilabete batzuk, Donostiako Jazzaldia hasiera emateko ekarritako gospel koru formatutik guztiz aldentuta egin digu azken bisita (Gospel doinu horiekin grabatu zuen bere azken bakarkako lana: "Sno angel like you"). Gelb-en prestigioa bere errekonozimendu publikoarekin bat ez badator ere, hark egiten duen country alternatiboaren berrirakurketan oinarriturik, edozein musika mota arrakastaz barneratzeko gaitasuna duela frogatu du sorkuntza ia orotan.

Bere sorkuntzaren enbor nagusiak *Giant Sand* du izena. Tucson-en (Arizona) finkatua eta azken 30 urtetan, amerikar ukituko rocka eta bestelako estiloen arteko nahasketa biltzen dituen enbor horretatik adar ezberdinak sortu dira, Gelb-en proiektu edota bere taldekideen proiektu bilakatu direnak. *OP8*, *The Band of Blacy Ranchette*, *Giant Sandworms*, edota duela gutxi ezagutu genuen *Arizona Amp and Alternator* Gelb-ek erabiltzen dituen mila mozorroetako batzuen izenak dira. *Giant Sand* enborretik sortu diren kimuen artean *The friends of Dean Martinez* eta nagusiki *Calexico*, Joey Burns eta John Convertino bikotearen proiektua aipatu nahi genituzke: bi musikari hauek taldekide zituela grabatu zuten, John Parish-ek ekoiztuta, *Giant Sand*-en diskorik eder eta liluragarriena: "Chore of Enchantment" (2000), desertuaren doinua gisa definitua izan den lana.

Proiektu nagusia alboratu gabe, Howe Gelb-ek beste esperimendu batzuk ere gauzatu ditu. Piano disko instrumental bi, aipatutako gospel koruarekin egindako lana, slide gitarraren sekretuak erakutsi zizkion Rainer Ptacek alemaniarraren lanetan egin dituen kolaborazioak.

Ipurterrea eta nekazina, koba batetik datorren ahotsaren jabe Lou Reed-ekin alboratzen dute batzuk. Kolore eta forma berriak gehitu dizkio bere kaleidoskopio musikalarari azken lanaren grabaketekin, Austriako talde batekin ekoiztu duen "musika molekularra" edota piano bilduma berri baten grabazioarekin. Fernando Vacas-en (*Flow, Prin La La*) gonbidapenari baiezkoa eman eta flamenkoarekin frogatzeko asmoa du. Gelb beti aurrera begira, beti mugimenduan.



 **cop. copine**[®]
BILBAO PARIS



Cop.Copine

Loteria 2, 48005 alde zaharra

Gordoniz 2, 48011

www.cop-copine.com



948 38 21 22

DISTURB US!

diseinu grafikoa, komunikazioa, web diseinua

irudi korporatiboa, edizioa, maketazioa

ilustrazioa, packaging, publizitatea...


estudiobitarte

marcelo celayeta 75 of. 14. 31014 iruñea

t. 948 38 21 22. f. 948 38 21 22

bitarte@estudiobitarte.com

www.estudiobitarte.com



AUDIO

testua/by: arkaitz villar



BIKE

Bilbao Kolektibo Elektronikoa

2007

Bike ez da soilik bizikleta bat. Bilbon sortu duten musika eta ikus-entzunezko kolektiboaren deitura ere bada. Bilborocken egindako aurkezpen festan eskuratu zitekeen hona ekarri dugun diskoa. Kolektiboko hainbat kidek osatzen dute eta haien berri emateko balio du. Bakoitzak bere estiloa eta lan egiteko moduak erakutsiz, Bilbo eta inguruetan sortzen diren proposamen berrienak erakusten dizkigu. Dantza egitera gonbidatzen gaituztenez, pausu ugari emango ditugu haien erritmorara.

Bike is not only a bike. It's the name of the music and audio-visual association created in Bilbao. This is the album that they presented in Bilborock. Some members of the association are in it and this album is their means of presentation. Each has his particular style and work manners and they show the newest proposals in Bilbao and surrounding areas. They invite us to dance so we will keep time to their music.

KASABIAN

Empire

Columbia 2007

Polemika handiarekin datorren diskoa: Christopher Karloff partaideak taldea utzi zuen estudioan sartu eta abestiak grabatzen hasi zirenean. Primal Scream edo The Faint bezalako pisua gainetik kendu ezinda entzuten da Kasabian-en bigarren disko hau. "Empire" abesti handiaz gain bada momentu onik "By my side" bezalakoetan. Jim Abiss (Artic Monkeys) arduratu da diskoa ekoizteaz eta popak, rockak, sikodeliak eta elektronikak elkarrekin nabigatzen dute bertan.

This is a very controversial album. Christopher Karloff abandoned the group when they were about to start the recording of the album. On this second album, you cannot listen to Kasabian without feeling the influence of Primal Scream or The Faint. In addition to the great song, "Empire", there are many good moments in songs like "By my side". Jim Abiss (Artic Monkeys) is the producer of the album where he mixes pop, rock, psychedelic and electronic music.

CLAP YOUR HANDS SAY YEAH

Some Loud Thunder

Autoekoizpena 2007

Alec Ounsworth ahotsak markatzen ditu abestiok. Bigarren diskoan, aurrenekoan bezala, ezinezko egiturak eta doinu aldaketak erakusten jarraitzen dute. Nahiz eta distortsioak pisua hartu duen eta aurrekoa bezain entzungarria ez izan. 60. hamarkadako eragina ikusten uzten duten doinu-collagez beteta datoz kantuok. "Satan said dance" elektronikoa da disko honen momenturik onenetarikoa.

The songs of this band from New York are marked by the voice of Alec Ounsworth. On this second album, they show the same impossible forms and sound changes. Although distortion takes the role on this album and it is not as easy to listen to as the first one, it has a great influence of the 60s. It is an album full of collages and songs like "Satan said dance" is one of the best moments of the album.



ARCADE FIRE

Neon Bible

Merge 2007

"Funeral" diskoarekin entzulegoaren errespetua, mundu zabaleko arrakasta eta jarraitzaile fidelak lortu zituen taldeak. Disko hartan ereserkia ugari zeuden eta jendearengana heltzea lortu zuten. Ez da erraza izaten hori guztia hurrengo diskoarekin ere errepikatzea, eta hori da hauei gerta dakiakena. Horrek ordea ez du zertan txarra izan. Taldearen garapena nabarmena da, eta zalantzarik gabe, aurtengo diskorik gogoangarrienetakoa izango da honakoa. The album "Funeral" gained the respect, success and fidelity of many fans. There were many anthems on that album and they managed to get to the audience what they wanted to transmit. It's not easy to do the same on the next album and this is what will happen to them. This doesn't necessarily need to be bad, or, at least, this is what the rumor has. The band shows its evolution and this is one of the albums of the year.

LISABÖ

Ezlekuak

Bidehuts 2007

Lisabö urakan bat da oholza gainean. Urteak ziren taula gainean ikusten ez genituela. Lan berria argitaratuko zutela jakin ostean zuzeneko kezka etorri zitzaigun: kontzerturik eskainiko ote dute? Bada bai. Ezlekuak transmitzen duen intentsitate, zuzenean sentitu ahal izan genuen, diskoa atera baino lehenago. Eta orain etxean entzuteko aukera dugu. Bidehuts izeneko ekimena sortu dute diskoa argitaratzeko eta denbora-pasa bada ere, denbora alde dutela erakutsi digute.

Lisabo is like a hurricane on stage. It's been a long time since we haven't seen them on a stage. Once we knew that they would publish their new album, we had a concern: will they offer a concert? Yes. They already showed that intensity of the place before and now, we have the chance to feel in at home. They have created an initiative called Bidehuts as the publication of the album and although time has passed, they showed that time is on their side.

GRINDERMAN

Grinderman

Mute 2007

Nick Cave doinu gordinetara itzuli zaigu. Bad Seedsen formatu mugatu batekin, azkenaldian alboan izan dituen musikariek babestuta, kantu indartsu eta intentsuak eskaintzen dizkigu. Rock banda bat da honakoa, diskoa astebete eskasean grabatu duena, eta denbora horretan erre dituzten energia guztiak abesti hauen bitartez helarazten dituzte, mugarik gabe gainera instrumentuen alde gordin eta apurtzaileena ezkutatu gabe, punkera gerturaturaz.

Nick Cave is back to the harsh sounds on his new proposal. Protected by the musicians that he had around him, he presents some powerful and intense songs. It is a rock band that recorded the songs in a week and transmit that energy on them. They show this with the harsh side of the instruments and getting closer to punk.

soinu mapa sound map



Paisaia: Eskualde bateko lurrazalaren ixura orokorra, forma geologikoeak, landarediak eta gizakiaren eraikuntzek ezarria, begirada batek bere osotasunean hartzeko modukoa.

Paisaiaren definizio ofizialean ikusmenari soilik egiten zaio so. Baina gure beste zentzuek ere paisaiaren pertzepzio propioa dute. Paisaia orok adibidez bere soinua du, aldiagaria eta ezberdina izan daitekeena une oro. Eta aniztasun horrek hain zuzen ere interesgarriagoa egiten du soinuen paisaia. Paisaia sonoro horiek kokatu eta gozatzeko sortu ziren soinu mapak.

Soinu Mapa proiektuaren abiapuntua 2001. urtean Luz Maria Sánchez mexikarrak Euskal Herrian egindako soinu grabaketak izan ziren. Audioliabek, Artelekun egindako egonaldian utzitako grabaketa hauek bildu eta Soinu Mapa proiektua sortu zuen.

Grabazio hauetaz gain, berriak jaso eta egindako ekarpenak biltzen jarraitzen du Soinu Mapa egitasmoak. Modu honetan, apurka apurka soinuen mapa osatuz doa. Mapa honek badu munduko beste eremu ezberdinetan parekorik. Homela, sarearen bitartez, edonorik izan dezake munduko beste paisaietan entzuten den soinuen berri. Eta ekimen irekia denez (Creative Commons lizentziapean) soinu hauek erabili eta elkarbanatzeko aukera dago.



The landscape: The general form of the soil in a region, settled by the geological forms, plants and human constructions, one that the eye can catch with a glimpse.

In the official definition of landscape, just the vision is considered. However, our other senses get their own perception of the landscape. Each landscape has its own sound, which can be variable and different every time. And this diversity makes this landscape even more interesting. Sound maps were created to enjoy those sound landscapes.

The starting point of the Sound Map project was in 2001 with the sound recordings that the Mexican artist Luz Maria Sanchez made in the Basque Country. Audioliab collected the recordings that were made in Arteleku and created the Sound Map project. In addition to these recordings, the Sound Map mission still collects new ones. Hence, it keeps on completing the sound map. This map has its counterpart in different areas in the world. Thus, through the Internet, anybody can get the sounds that can be heard in other landscapes. And since this is an open project (under Creative Commons license), these sounds can be used and exchanged.

kontu txino bat



Txinatarren filmak maite genituen haurtzaroan. Akaso horregatik eman genuen izena ikastolako judo taldean. Denborak aurrera egiten du ordea. Pelikula haiek ikusten genituen zinema areto desagertuen izen mitikoei erreparatzea besterik ez dago: Rex, Savoy, Miramar... Gure judo irakaslea ere, mitiko bihurtu da bere erara. Garai hartan ile gehiago eta bibotea zuen Julen Madina gaztea zen gure "maisua". Kontua da, haurtzaroko txinatarren film horiek maitatzen jarraitzen dugula. Eta orain zain gaude. Zang Yimouren azkenekoaren zain.

The Curse of the golden flower -urrezko lorearen maldizioa- izena du, nahiz eta jatorrizko izenburua "Urrezko armaduradun hiria" duen. Film honetan bere azken lanen (Hero, House of the flying daggers) joerari jarraitzen dio: guda eszena ikusgarriak, dekoratu liluragarrietan gertatzen diren botere intriga shakesperianoak eta kulebroi kutsuko maitasun istorioak. Eta Yimouk ohi duen moduan, arnasa kentzeko moduko irudi planteamendu ikusgarri batekin filmatua. Drama honek gainera polemika handia piztu du Txinan. Polemikaren ardatza, bitxia badirudi ere, eskoteetan dago. Kritika ugari jaso dituzte soinekoek, eta haiek estali ez dituzten gorputz-atalen gainezka egiteko joera. Polemika horrek ordea ez du saihestu Yimouren azken filmak Txinako historiako takila errekor guztiak hautsi izana. Arrakasta honen ardatza, enpresek masiboki erositako sarreretan dago. Esate baterako, China Mobile telefono konpainiak 740.000 euro gastatu ditu bere langileentzat sarrerak erosten.

Nik, judoa gerrikoa, hori-laranjan zintzilikatu nuen. Gure judo irakasleari, Iruñeko entzierroetako "jandillek" gerrikoa gorritz margotu zioten... denborak aurrera egiten jarraitu du... baina txinatarren filmek gudan sortzen duten lilurak bizirik dirau. Eta lilura hau gainera hazten joango dela susmatzen dugu, deslokalizazio fenomenoak jota, enpresa ugari bere ekoizpena Asiaran eraman duen garai hauetan ametsen fabrika ez delako salbuespen bat.

a chinese tale

We loved Chinese films when we were kids. Come to think of it, that's probably why we put our names down for judo at school. However, time ploughs on. Just look at the list of the mythical cinemas where we saw those films, they have all long since disappeared: Rex, Savoy, Miramar... Our judo teacher from back then has also become a bit of a myth after his own fashion. A moustachioed Julen Madina with a full head of hair was our 'master'. Anyway, the thing is that we still love those old Chinese films. And now we're waiting... waiting for Zang Yimou's latest flick.

It's called The Curse of The Golden Flower, although the original Chinese title is The City of The Golden Armour. It very much follows on in the lines of his other films (Hero, The House of The Flying Daggers.) Amazing war scenes, tales of Shakespearian power intrigues and soap-style love tangles. This is all filmed with Yimou's usual breathtaking aesthetics and spectacular camerawork. To top things off, this picture seems to have ruffled quite a few feathers in China. The trouble lies, it seems, in the cleavages on show. The dresses have come in for some harsh criticism, as have those uncovered parts of the body that seem to be popping out everywhere during the film. The polemics haven't stopped Yimou's last film from breaking all box-office records in China though. The reason why it's broken so many records is because several large companies have snapped up massive amounts of tickets. Telecom company China Mobile has spent 740,000 euros on tickets for its workers.


I got as far as the yellow-orange belt before I chucked in the judo. The Jandilla bulls bloodied our old judo teacher's sash for him in the bull-run in Pamplona... time goes by... but we still delight at Chinese films. We get the feeling that this delight isn't going to abate either. In this day and age where relocation is seeing so many factories heading to Asia, they also seem to have got their hands of the factory of dreams.

testua / by: uxeta labrit



no comment

argazia / shot: zalopi • paris





zilarrezko eraztunaren asuntoa

Rod eta Tod, Ned Flandersen semeak hazi egin dira. Nerabe orori bezala, granoak eta hankatarteko azkurak hasi zaizkie...eta jakina, Ned aztoraturik ibili da azkenaldian. Zilarrezko eraztunaren asuntoarena jakin zuen arte. Gezurra badirudi ere, ez da Simpson telesailko atal batetatik ateratako trama. Ez, "Eraztunaren komunitate" hau organizazio sasi erlijioso baten moduan funtzionatzen du. Apaiz edo artzainak ditu eta ekitaldiak antolatzen ditu. Zilarrezko eraztunaren asunto honen helburuak bi hitzetan: Gazteek euren "birjinitatea" ezkondu eta bizitza osorako aukeratu duten bikotekidearentzat gordetzea da helburua. Abstenentzia sexualaren aldeko promesa. Eta konpromiso horren lekuko, gurasoek gaztetxoari oparitzen dioten zilarrezko eraztuna.

Golum koadrila honentzat "altxor" hori gordetzea bihurtzen da bizitzaren ardatza. Eta jakina, altxor hori ematen denean, beti zure alboan izango den horri eman behar zaio (altxorra gertu izateko edo...). Ez ezazue ordea irribarre nabarmenagirik egin, zuk, lehendabiziko hartan "zerbait galdu" zenuela esaten duzulako, beraz, beste maila batean bada ere, Golum bat zaitugu "altxor" kontutan... Hala ere, eta galdutako hura berreskuratzekotan bazabiltza, "The Silver Ring Thing"-ekoek bigarren aukera eskaintzen dizute "bekatari" gisa azaldu eta birjinitate berri baten bila gerturatzen bazara.

Guzti honek ergelkeria dirudi, baina The Silver Ring Thing, AEBtako kristau fundamentalistek azken urteetan bizi duten krisia estaltzera dator. Rock kristauaren zirkuitua aldapan behera doa bertan parte hartzen duten taldeen ibilbideak mandamendu ugari hausten duelako behin eta berriro; U2-koei pasa zaie gurutzearekiko sukarra eta orain erlijio guztien elkartasunaren alde kantatzen dute. Eta duela gutxira arte euren ikono nagusienetakoa zen Britney Spears autoetako atzeko eserlekuetatik kulerorik gabe ateratzen hasi da. Eta guzti honen ondorioa? Milaka gaztetxok luzitzen dutela harro euren zilarrezko eraztuna.

Gu ez gara anti yankee panfletarioak. Estatu Batuarrek ankerkeria eta okerkeria asko egiten dituzte. Egia da. Baina ezin da ukatu umore kontutan ez dutela parekorik. Ladies and gentleman...The Silver Ring Thing!

the silver ring thing..

Rod and Tod, Ned Flanders two kids, have grown up. Like all teenage kids, they've got spots and there's a certain itchiness bugging them between their legs. Poor Ned is up the wall lately. Well, that was until he heard about the silver ring thing. You'd be forgiven for thinking that it's something straight out of a Simpson's episode, but it's not. This 'Fellowship of the Ring' works along the lines of a quasi-religious organisation. Priest or shepherds are involved and they organise quite a few acts, too. This silver ring thing's objectives are basically the following: For teenagers to keep their 'virginity' until they are married and to save it for the one person they have chosen to marry and be with for the rest of their lives. A promise in favour of sexual abstinence. And parents give their children a silver ring as a sign of their commitment.

Keeping their 'precious' safe is the mainstay of this shower of Gollums' lives. And of course, when you offer up your 'precious', it has to be to the person who is going to spend the rest of their life with you (maybe to make sure your 'precious' is always at hand...) Don't be too cocky about it, mind you. On that first occasion, you 'lose something', so, be it on another level, you're a bit of a Gollum when it comes to your 'precious.' That said, if you're looking to get back that something you lost, the good folk over at the "The Silver Ring Thing" offer a second chance to those of you 'sinners' who are looking for a second virginity.

This all sounds like a nonsense but The Silver Ring Thing is trying to make up ground for fundamentalist Christians in the USA, who have been living through their own particular crisis over the last few years. The Christian rock circuit has spiralled downhill with Christian bands' notorious behaviour notably turning a blind eye to the ten commandments. U2 have gotten over their bout of 'religious' flu and now sing in favour of brotherhood amongst all religions. Their biggest icon until quite recently, Britney Spears, is now seen clambering out of taxi back seats with no knickers on. The consequences of the above? Thousands of youngsters proudly brandish their silver rings!

We are not anti-Yankee American bashers. It's true that Americans do a lot of wrong and shitty things, but you can't deny that no-one can come near their humour. Ladies and Gentlemen.... The Silver Ring Thing!



tiger lily

Kontua hau zen: posible ote zen Manuren irudi indartsuak azpituatutako zituen hitzak topatzea? Irudiak ilustratu gabe eta errepikakor suertatu gabe haiei lagunduko zien testua behar zuen izan. Woody Allenek What's up, Tiger Lily? filmean egin zuena egitea erabaki genuen, azkenik: filma bikoiztea, filmeko ekintzarekin zerikusirik ez zuen testu batekin. Baina zein testu? Ahor dilema.

Lizunkeriaren gainean (?) berbetan ari ginela, artistak bere lan-mahaian zituen irudi guztiak mahaitik lurrera bota zituen bere sukarraldietako batean, mahaia ohe bihurtu nahian, nonbait. Oso pelikuleroa, inondik ere. Libidoaren sumendikeria, desordenaren ibaia, kaosaren zentrifugatua... Lasaitzeko eskatu nion Manuri: latigoa erabili behar izan nuen. Diziplinarik gabe ez goaz inora. Egoera konpondu beharra zegoen kontrola erabat galdu aurretik. Bibliotekara jo eta Juan Navarro Dagnino fragata kapitain falangistak 1944. urtean argitaratutako Naufragoendako eskuliburua begiz jotzea, dena bat. Eskuliburu honen lehen orrialdean ohartarazten zaigunez, salbamendu txalupa orotako emergentzia-kaxan derrigor eraman beharrekoa da liburuxka. Falangearen lizunkeria, naufragioa eta sexua, segida berean. Serio demonio idatzita egon arren, komikotasunera nahi gabe lerratzen da Dagninoren testua. Serio demonio aritu arren, komikotasunera nahi gabe lerratzen zaigu sexua.

Help niri!



"Instrucciones para naufragos" 150 aleko liburu berezi honek Manu Muniategiandikoetxearen marrazki erotikoak biltzen ditu.





tiger lily

